

Hizkuntza inklusiboaren erabilera irakaskuntza eta ikerketan

ECT kreditu kopurua: 0,5

Hartzaileak

Edozein jakintza-arloko UPV/EHU-ko irakasle.
Ikastaroa UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzarekin koordinatuta antolatu da.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Hizkuntza edo komunikazio inklusiboa erabiltzearen inguruan dituzten zalantzetatik harago, ikasgelan eta lan-taldeetan irakasleek somatzen duten generoaren arabera dagoen parte-hartze desorekatuaren inguruan antolaketa eta komunikazio aukerak eskaintzen bilatzen da, emakumeen parte-hartzea bultzatzeko asmoz (izan ere, nahiz eta talde batzuetan emakumeak gehiengoa izan, gizonek hartu ohi dute bozeramailletza). Era berean, GrAL-ak zuzentzeko orduan sortzen diren zalantzetatik abiatuko ginateke.

Ikastaroaren ikaskuntza-emaizak

Komunikazio-estilo ezberdinak (aserziozkoa, pasibo, agresiboa) identifikatu eta genero-ikuspegitik aztertu.

Komunikazio-estilo feminista (hizkuntza eta komunikazio ez-androzentrikotik harago) ezagutu eta landu, bai pertsonarteko komunikazioan zein esparru publikoan.

Ikasleei komunikazioa lantzeko tresnak eta baliabideak eman, bere ahalduntze prozesuan baliagarriak izan daitezkeenak.

Metodologia

Metodologia parte-hartzailea izango da. Kasu partikularrak kudeatzeko estrategia edo tresnak aztertuko dira.

Egitaraua /gaiak

- Hizkuntza inklusiboa (UPV/EHUko gida zein beste material batzuetan oinarritutako ariketa praktikoa)
- Iruditegi inklusiboa landu material eta aurkezpenetan (power pointak, argazki eta bideoak nola landu)
- Erreferentziak eta bibliografiaren lanketa inklusiboa

Ebaluazioa / Akreditazioa

Akreditazioa lortzeko bete behar diren baldintzak:

- bertaratutako orduen % 100era joatea
- Ikastaroan eskatutako lanak egitea

Datuak

Iraupena

0,5 ECTS

Datak

Ekainak 17 Araban

Ekainak 18 Bizkaian (Leioa)

Ekainak 19 Gipuzkoan

Ordutegia

5 orduko ikastaroa 9:30-14:30

Ez presentziala: 7,5 ordu

Campusa

Araba, Bizkaia (Leioa) eta Gipuzkoa

Tokia

Onartutakoei jakinaraziko zaie

Parte-hartzaile kopurua

Gehienez 30

Hizkuntza

Gaztelania/Euskara

Bizkaia eta Arabako kanpusetan gaztelaniaz

Gipuzkoako kanpusean euskaraz

Irakasleak

Arantza Gutierrez Paz

Izena emateko epea

Deialdia zabaldu eta astebetez luzatuko da izena emateko epea

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Inskripzioa langilearen atariaren bidez egingo da. Parte-hartzaileak izena emateko ordenaren eta hautaketaren lehentasunaren arabera hautatuko dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko